

3.3.3. UDAL-AREAK.

EKONOMIA LOKAL IRAUNKORRA. GIZA BALIABIDEAK.

UDAL-PLANTILLA

PLANTILLAREN BILAKAERA

	2013	2014	2015	2016	2017
IRUÑEKO UDALA					
Funtzionarioak	987	936	901	890	877
Aldi baterako langileak	259	315	372	369	411
HAUR ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA					
Lanaldi osoa	117	117	150	149	¿
Lanaldi murriztua	16	16	32	33	¿
HIRIGINTZAKO GERENTZIA	30	30	33	33	33
GUZTIRA	1409	1414	1488	1474	

2017an, Iruñeko Udalaren langileria organikoa nabarmen handitu da udalak etxez etxeko arreta-zerbitzua bere gain hartu zuenetik, Etxez Etxeko Laguntzako Udal Taldea bertan sartzea ekarri baitu. Honako langile hauek ditu: 1 zuzendari tekniko, 1 erdi-mailako tituludun, 6 gizarte-langile, 1 administrari eta 187 familia-langile (horietatik 109 lanaldi osoan, eta 78 lanaldi partzialean).

	2013	2014	2015	2016	2017
IRUÑEKO UDALA					
Funtzionarioak	987	936	901	890	877
Aldi baterako langileak	259	315	372	369	411
HAUR ESKOLAK ERAKUNDE AUTONOMOA					
Lanaldi osoa	117	117	150	149	¿
Lanaldi murriztua	16	16	32	33	¿
HIRIGINTZAKO GERENTZIA	30	30	33	33	33
GUZTIRA	1409	1414	1488	1474	

Aurten egindako hautaketa-prozesuei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira::

- Merkataritza eta Turismoko zerbitzuburua
- Giza Baliabideetako eta Antolamenduko teknikaria, 2016an hasita
- Euskara-teknikaria
- Familia-langilea
- Estrategiako eta proiektuetako goi-mailako teknikaria
- Albaitaria
- Gizarte-enpleguko jantokiko arduraduna
- Txistu-irakaslea
- Soldadura-irakaslea
- Community Manager
- Kontrabaxu-irakaslea
- Biolontxelo-irakaslea
- Abesbatza-irakaslea
- Comirunarako koordinatzaile-dinamizatzailea
- Udaltzaingoaren lehiaketa
- Gizarte-enpleguko pintura-lantaldeko ofiziala
- Soziologoa
- Informatika-sistemako arduraduna

Halaber, deialdi hauek 2017an hasi eta 2018an amaituko dira:

- Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzietako graduduna
- Gizarteratze eta laneratzeko ibilbideetako enplegu-programen arduraduna
- Gizarteratu eta laneratzeko programen koordinazio-arduraduna
- Emakumeei, haurrei eta familiei laguntzeko programen arduraduna
- Garbiketa-lantaldeko ofiziala
- Elikagaien industriako goi-mailako teknikaria
- Ingurumeneko goi-mailako tituluduna
- Udaltzaingoko agentea (sarrera eta 2017ko LEPa betearaztea)
- Administrazioako laguntzaile eta ofizialen lekualdatzeak

- Arkitekto teknikoa
- Goi-mailako arkitektoa
- Mantentze- eta desinfekzio-lanen arduraduna
- Laneko Arriskuen Prebentzioko ofiziala
- Nominak, erdi-mailako tituluduna
- Abesbatza-irakaslea
- Flauta-irakaslea

LAN-ESKAITZA PUBLIKOA

Udalak 2017. urterako lan-eskaintza publikoa onartu du, Estatuko aurrekontu-araudiarekin bat etorritik, horren barruan honako hauek sartuta:

- Udaltzaingoko 11 udaltzain lanpostu
- 10 kabo (3, txanda irekikoak; eta 7, barne-igoerakoak)
- 11 gizarte-langile
- 2 ekonomista
- 2 itzultzaile
- 1 partaidetza-teknikari
- 1 gazteria-teknikari
- 1 berdintasun-teknikari

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

Lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren negoziazioei ekin zaie, eta 2018an amaitzea aurreikusten da.

Aurten ere hasi dira jardunean Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta administrazioko langile kontratadunen 2017-2019 bitarteko lan-baldintzei buruzko hitzarmenaren ondoriozko lantaldeak. Administrazioaren eta ordezkari sindikalen artean hitzarmenak egin, neurriak hartu eta/edo irizpideak ezartzeko eratu dira talde horiek, izena eman dieten gaietan, honako hauetan zehazki:

- LEP eta irizpideak
- Bigarren jarduera
- Erregulazioa
- Aparteko orduak
- Egutegiak eta jardunaldiak
- Absentismoa

ANTOLAKETA ETA GIZA BALIABIDEAK

Antolaketako eta Giza Baliabideetako goi-mailako teknikariak sartzea bereziki garrantzitsua izan da udal-zerbitzu batzuen berrantolaketaren azterketari ekiteko (udal-artxibategia, ikas-tetxeak, hilerria, Herritarrendako Arreta Bulegoa, informazio eta ordenantzen ofizialak, giza baliabideak eta ibilgailuak, besteak beste).

Udal-alorren eta/edo -zerbitzuen antolaketa aztertzeiko dinamika horri datozen urteetan eutsiko zaio, antolaketa etengabe hobetzeko jarduera modura, eta zerbitzuak emateko egiturak errealitate berriei (lege- zein teknologia-arlokoak, besteak beste) eta herritarren eskariei egokitzea du helburu.

Antolaketa-prozesu bakoitzaren emaitzei esker, halaber, Giza Baliabideak kudeatzeko oinarri-zko tresna batzuk (lanpostuen deskribapenak, adibidez) edukiko ditugu, eta horien bitartez errazagoa izanen da prozesu hauek behar bezala kudeatzea: langileak aukeratzeko prozesuak, prestakuntza-planak egitekoak, langileak lanpostura egokitzea eta, oro har, pertsonen bideratutako politikak, lanaren eta norberaren bizitza uztartzera bideratutakoak barne.